

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

270/2016 Foru Agindua, irailaren 14koa, onartu egiten duena Arabako lurralde historikoan 2016-2017 ehiza denboraldian usoak eta birigarroak ohiko pasalekuetan ehizatzeke araudi berezia

Arabako Lurralde Historikoan 2016-2017 denboraldirako ehiza arautzen du uztailaren 14ko 231/2016 Foru Aginduak. Foru agindu horrek arauz baimendutako ohiko pasalekuetan uso migratzaileak eta birigarroak harrapatzeke arauzko epea zehazten du. Epe hori, hain zuzen ere, urriko lehenengo igandean hasi eta abenduko lehenengo igandean bukatuko da, biak barne. Arabako Errioxan, berriz, azaroan, abenduan eta urtarrilean egunero harrapatu ahal izango dira birigarroak.

Martxoaren 17ko 2/2011 Legearen, Ehizari buruzkoaren, 12. eta 41. artikuluetan, eta indarrean dagoen Ehizari buruzko Arautegiaren 17.8 eta 25.7 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik, Nekazaritza Saileko Mendi Zerbitzuak egindako arau berezietan egokituko zaizkie tiro postuen kokapena, haien artean gutxienez egon behar den tarte eta gehiegikeriak saihestuz haiek erabiltzeko eskubidea.

Aipatutako foru agindua garatuz, eta ekainaren 14ko 8/2004 Foru Arauaren, Arabako lurralde historikoko ehizari buruzkoaren, 30.2 artikulua oinarri, Arabako lurralde historikoan ehiza mota horren aprobetxamendu antolatua xedatzeko, arauzko txostenak ikusita eta aitortzen zaizkidan ahalmenez baliatuz, hauxe

XEDATZEN DUT

LEHENENGOA. Arabako lurralde historikoan 2016-2017 denboraldian usoak eta birigarroak ohiko pasalekuetan ehizatzeke arau hauek ezartzea.

A. TIRO POSTU ETATXABOLETARAKO ARAU ERKIDEAK:

1. Arau hauek sortuko dituzten ondorioetarako, ondokoak izango dira ohiko pasalekuak: apirilaren 4ko 1/1970 Legearen, ehizari buruzkoaren, argitaratze eguna (1970eko apirilaren 4a) baino lehenago eraikitako tiro postuak edo txabolak, baldin eta hiru urtez jarraian erabili badira, 15 ehiza egunez behintzat.

2. 1970eko apirilaren 4az geroztik eraikitako tiro postuek zein txabolek eta etorkizunean eraiki daitezkeenek Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Zuzendaritzaren idatzizko berariazko baimena beharko dute ohiko pasaleku izan daitezen. Hasiera batean, behin-behineko baimena izango dute, harik eta jada baimena duten beste batzuei edo hirugarren batzuei kalterik ez dakarkielako egiaztatu arte.

3. Foru agindu honen I. eranskinean jasotzen dira ehiza esparruetan ohiko pasalekuetan baimendutako tiro postuak eta txabola bakarrak. Ez da baimendutako tiro postuetatik zein pausatuta usoak eta birigarroak ehizatzeke erabiltzen den beste edozein egitura artifizial.

4. Ehiztarietarako aterpe iraunkor edo egonkorrari esaten zaio txabola, baldin eta usoari, hura zehaztuz pausatuta dagoela, tiro egiteko leku proposa bada.

5. Tiro postuak dira hegan doazenei tiro egiteko ehiztaria ezkututzen duten instalazio egonkor eta iraunkorrak. Instalazio horiek zurez, metalezko materialez eta beste material egoki batzuek eginak egongo dira.

6. Tiro postua edo txabola egiteak ez dakarkio ez egileari, ez eta lursailaren jabeari ere, inongo ehiza eskubiderik.

7. Zuhaitzian tiro postuak edo txabolak eraikitzeo nahiz haien eraikitzeo landaretza moztu edo inautseko Mendi Zerbitzuaren eta zuhaitziaren erakunde jabearen baimena eduki beharko da.

8. Ehiza esparruetako tiro postuak zein txabolak ehiza esparru horren administrazioarako ezarritako arauak betez erabiliko dira.

9. Debekatuta dago usoak erakarri, uxatu edo norabidea oztopatzea helburu duen beste ezein egintzaz baliatzea, hala nola seinaleak, tiroak, txupinak edo haien ohiko ibilbidea aldarazteko asmatutako beste edozein jardunez, salbu eta txaboletan abatak erabiltzea.

10. Debekatuta dago ehiza ibiltaria eta eskopetak zorrotik aterata tiro postu edo txaboletatik kanpo ibiltzea, salbu eta botatako ehizakiak jasotzera irteten denean; halakoetan, hutsik eramango da arma.

11. Mendi Zerbitzuak berariaz ezarritako inbentario ofizialean zehaztutako tokian kokatu beharko dira I. eranskinean ageri diren tiro postu eta txabola guztiak, UTM geografia koordenatuen bidez (ETRS 89). Halaber, behar bezala seinalatuko eta zenbakituko dira. Horretarako kontuan hartuko da foru agindu honen F idatz zatian adierazitako berariazko araudia.

12. Debekaturik dago erabilitako kartutxoak basoan uztea; horregatik, neurriak ezarriko dira erabiltzen diren egunean bertan bil daitezten. Halaber, ezin izango da ezelango zaborrik ez hondakinik utzi, ez tiro postuetan, ez txaboletan.

13. Denboraldi osorako zozketa edo enkante bidez esleitutako tiro postu edo txabolei dagokienez, ehiza esparruen elkarte, klub edo pertsona esleipendunek, udalek eta administrazio batzar arduradunek honako datu hauek igorri beharko dituzte Mendi Zerbitzura denboraldia hasi baino lehen:

- a) Esleitu zein hutsik gelditu diren tiro postuen eta txabolen zerrenda.
- b) Identifikazioa: izena, abizenak, jakinarazpenak bidaltzeko helbidea eta telefona.
- c) Esleipenak edo onik zaintzeak eragindako gastuen konpentsazio gastuak.

14. Ehiza esparrua esleitu zaion erakundearena izango da erantzukizun zuzena (udala, administrazio batzarra, ehiztari elkarte, ehiza kluba, norbanakoa eta abar), ehiza esparruan ehizarako egitura baimen gabeak egonez gero (pantailak, aldamiok, postuak eta txabolak, eta abar), edo postuen seinaleztapena arauz kontra eginez gero, edo seinaleztatzerik ipini ezean, edo ehiza esparruko postuetan eta txaboletan kartutxoak, zaborra, hondarrak eta material baimendu gabea egonez gero (metalak, plastikok edo egurra, eta abar), edo ehiza esparruaren inguruko landaretzari era batera edo bestera eragiten bazaio (moztea edo inautsea) hartarako baimenik eduki gabe.

15. Tiro postu eta txabolak eraikitzean ingurumen eragin txikiena sortze aldera, ezingo dira ondoko materialak erabili: zementua, adreiluak, blokeak, baldosak, terrazoak, plastikozko tol-doak, behegain plastifikatuak edo antzekoak. Horiek horrela, ondokoak baino ez dira baimenduko: berde mimetizatuko egurrezko edo metalezko aldamiok, landare panelak, lonazko tol-doak edo egurrezko egiturak. Halaber, ezingo dira altzairuzko kableak zuzenean erabili zuhaitzen azalean, ez eta torlojuak edo iltzeak ere.

16. Tiro postu eta txabola berrien egiturak edo aldamiok erraz desmuntatu beharko dira eta ezin izango dira lurtean finkatu zementuzko edo kareorezko zolen bidez edo euskarrien bidez, beharrezkoa bada erraz kentzeko modukoak izan daitezten.

17. Esparru bateko gainerako ehiza aprobetxamenduetatik aparte esleitutako tiro postuen edo txabolen elkarte, klub edo pertsona esleipendunek Mendi Zerbitzura urtero bidali beharko

dute otsailaren 15a baino lehen denboraldi bakoitzean harrapatutako uso eta birigarro kopurua. Informazio hori ez aurkezteak berekin ekarriko du ehiza debekatzea tiro postu eta txabola horietan, hurrengo ehiza denboraldietan.

18. Legez baimendutako tiro postuetako eta txaboletako ehiztarien baimenik gabe, ezin izango da aritu tiro postutik 500 metro barruan dauden esparru mugakideetan usoak eta birigarroak harrapatzen. Debeku hori 2015-2016 ehiza denboraldi arteko (2015-2016 barne) postu eta txaboletarako baino ez da.

B. HEGAN DOAZEN USOAK ETA BIRIGARROAK TIRO POSTUETATIK HARRAPATZEKO ARAUAK:

1. Itxaron lerro bereko tiro postuak 30 metrotik 30 metrora egongo dira gutxienez. Horrez gain, baldin eta tarte hori 50 metro baino gutxiagokoa bada, indarrean den Ehiza Legearen Arautegiaren 53.6 artikuluan eskatzen den babes pantailekin horniturik egon beharko dute tiro postuek.

2. Hegan doazen usoak eta birigarroak harrapatzea da eduki beharreko baimena duten tiro postuetatik egiten den ehiza jarduera. Erabat debekatuta dago pausatuta daudela tiro egitea, hegan doazela tiro egiteko baimendutako tiro postu batetik.

3. I. eranskinean zerrendatutako postu eta txaboletan izan ezik, ehiza esparru bakoitzerako zehaztutako egun baliodunetan baino ezin izango dira saltoka eta hegan doazela harrapatu. Nolanahi ere, hegan doazela harrapatuz gero, babes edo karel natural baten petik egin beharko da, izan ere, ehiztariak hegan doazenei tiro egiteko ezkutatzeko erabiltzen dituen egitura artifizialak, iraunkorrak edo aldi baterakoak berariaz egongo dira debekatuta, material naturalekin eginda egon arren.

4. Lehenengo lerroaren aurretik ez da tiro posturik egongo 500 metroan. Atzekoetan batetik bestera, gutxienez, 120 metro izango dira.

5. Baimena jaso berri duten tiro postuetan, ostera, tiro postu horien eta bide publikoen artean 50 metro egongo da, gutxienez, baldin eta ohiko tiro norabidea bide publiko horretarantz bada. Ezin izango da usotarako txaboletatik 1.000 metrotik behera uso postu berririk egiterik onartu usoak hegan doazela harrapatzeko, kontuan izan behar baita txaboletatik ehiza mota berezia egiten dela.

6. Tiro postuak eguna argitzen duenetik (egunsenti eta ilunabarren egutegi ofiziala) ilundu baino ordubete lehenago arte erabil daitezke.

7. Pasalekuari perpendikular ehiza mugarik badago, tiro postuak mugatik 50 metrora egongo dira, ehiza lurren jabeek besterik adostu ezean.

8. Elkarren ondoan dauden tiro postu berri biren artean pasalekuari paralelo ehiza mugarik badago, tiro postuak, gutxienez, mugatik 100 metrora egongo dira, ehiza lurren jabeek besterik adostu ezean. Lerro berean egon eta elkarte, klub eta pertsona esleipendun biri dagozkien tiro postuen artean ere ehun metro egongo dira.

9. Tiro postuetan, gehienez, bi ehiztari egongo dira, eta hori akordiorik badago. Era beran, ehiztariko, gehienez, eskopeta bat erabili ahal izango da.

10. Bi tiro posturen artean interferentziarik egonez gero, antzintasun handiena duenak izango du beti lehentasuna. Interferentzia dagoela ulertzen da baldin eta lehentasuna duen tiro postuaren eraginkortasuna murriztuta geratzen bada eta eragindako tiro postuen titularren artean elkarrekin ehizatzeko akordiorik ez badago.

11. Tiro postuaren egitura edo tiro postua edo txabola lekuz aldatzeko, Mendi Zerbitzuaren baimena beharko da. Aldaketa esaten zaio tiro postua gorago eramateari, lekuz aldatzeari, sastrakak eta zuhaiztiak garbitzeari

C. USOAKTXABOLATIK ABATAZ HARRAPATZEKO ARAUAK:

1. Pausatutakoari baino ezingo zaio tiro egin txabolatik, beraz, ezinbestekoa da abata edukitzea.
2. Debequatuta dago abata bizi itsu edo motzak erabiltzea.
3. Tontorretan egongo dira pausatutakoak abataz ehizatzen diren tiro postuak.
4. Txabolen artean, gutxienez, 300 metro egongo dira. Bi tiro postu egon ahal dira txabolako, baina batetik baino ezin izango da ehizan jardun, eta gainera eguneko ehiza baldintzak kontuan hartuta. Txabola bereko bi tiro postuen artean 50 metro baino gutxiago egongo da eta behar bezala seinalatuta egongo dira.
5. Txabola baimendu berriei dagokienez, haien eta bide publikoen artean, 50 metro egongo dira behintzat, baldin eta ohiko tiro norabidea bide publiko horretarantz bada.
6. Txabolak eguna argitzen duenetik (egunsenti eta ilunabarren egutegi ofiziala) ilundu baino ordubete lehenago arte erabil daitezke.
7. Txaboletan, gehienez, bi ehiztari egongo dira, eta hori akordiorik badago. Era beran, ehi-ztariko, gehienez, eskopeta bat erabili ahal izango da.
8. Foru agindu honen I. eranskinean zerrendatzen diren txabola baimenduetatik baino ezin izango da abataz ehizatu.
9. Txabolaren egitura aldatzeko, Mendi Zerbitzuaren baimena beharko da. Aldaketa esaten zaio txabola gorago eramateari, lekuz aldatzeari, sastrakak eta zuhaitziak garbitzeari
10. Ahal dela, eragotzi egin beharko da txabolaren egitura osatzen duten hedeek eta gainerakoek arriskua ekartzea pertsonen osotasun fisikoari edo etxeko abereei nahiz basabereei.

D. ARABAKO ERRIOXAN TIRO POSTU FINKOETATIK BIRIGARROAK HARRAPATZEKO ARAUAK:

1. Tiro postu finkoetatik birigarroak baino ezin dira harrapatu.
2. Tiro postu horiek azaroan, abenduan eta urtarrilean egunero erabili ahal dira.
3. Tiro postuak eguna argitzen duenetik (egunsenti eta ilunabarren egutegi ofiziala) ilundu arte erabil daitezke.
4. Tiro postu baimendu berriei dagokienez, haien eta bide publikoen artean, 50 metro egongo dira behintzat, baldin eta ohiko tiro norabidea bide publiko horretarantz bada.

E. TIRO POSTU ETA TXABOLEI BURUZKO BAIMEN BERRIAK:

1. Errentamendu aldia bukatuta duten ehiza esparruetako erakunde titularrek (udalak edo administrazio batzarrak) baino ezin izango dituzte eskatu uso eta birigarrotarako beste tiro postu edo txabola batzuk, ehiza esparrua sortu edo eraberritzen duen foru agindua argitaratu baino lehen. Txosten tekniko batek bermatu beharko ditu eskaerak.
2. Tiro postu edo txabola berriak emateko ondoko irizpideak izango dira kontuan:
 - Ehiza esparruko ehizaren antolamendu plan teknikoa.
 - Ehiza esparruko edo esparru hori osatzen duten lurretako (esparrua berria bada) ehiza jardunaren historiala, aurreko urteetan harrapatutako usoei eta birigarroei buruzkoa.
 - Esparru horretako edo esparru hori osatzen duten lurretako (esparrua berria bada) ehi-zaren jarraipen plana eta harrapaketen berriak, aurreko denboraldietakoak.
 - Geografia eta ehiza ezaugarri berdinak dituzten esparru mugakideetan dauden tiro postu eta txabola kopurua.

3. Ehiza esparruen elkarte, klub edo pertsona esleipendunek beren esparruko tiro postuetan eta txaboletan aldaketak egiteko baimena eskatu ahal izango dute. Aldaketa horiek izango dira bajak konpentsatutako altak, kokapen berriak eta goratzeak. Esparruko ehizaren jarraipen plana idatzi duen teknikariak egindako txosten baten babesa izan beharko dute eskaera horiek, baita titularraren oniritzia ere. Bost urtean behin baino ezingo dira egin eskaera horiek, Mendi Zerbitzuak baimendutako aldaketa egin zenetik, salbu eta justifikaturiko arrazoiren bat bada tarteko.

4. Ehiza esparruetan errentan emandako tiro postuetan, beste ehiza mota batzuk egin arren, ehiza lurren jabe diren erakundeek baino ezin izango dute beren esparruko tiro postu eta txaboletan aldaketak egiteko baimena eskatu. Tiro postuen esleipen urtean edo Mendi Zerbitzuak azken aldaketa baimendu zuenetik bost urte igarotakoan baino ezin izango dira egin eskaerak, betiere esleitu aurretik eta arauzko epeen barruan.

5. Dauden tiro postuen antolamendua eta araudia hobea izan dadin 2017-2018 ehiza denboraldirako, ehiza esparru bateko tiro postu eta txabolak aldatzeko eskaera egiteko epea, zeinari 3. paragrafoan egiten baitzaio erreferentzia, 2017ko otsailaren 1etik maiatzaren 31 arte, biak barne, baino ez da izango.

6. 2017ko maiatzaren 31tik aurrera berritu edo eratuko diren esparruen elkarte, klub edo pertsona esleipendunek ekainean eta uztailean eskatu ahal izango dituzte baimenak. Edonola ere, 2017ko abuztutik aurrera jasotako eskaerak hurrengo ehiza denboraldian izapidetuko dira, ez baita oztopatu nahi irailean argitaratu ohi den ohiko pasalekuetako ehizari buruzko berariazko foru agindua egitea.

7. Ez da beste tiro postu edo txabolarik baimenduko, behar bezala arrazoitutako salbuespenik dagoenean izan ezik, erabiltzen ez diren edo gutxi erabiltzen diren beste batzuen bajaran konpentsatu ezean. Neurri hori tiro postu eta txabolak ez ugaritzeko hartuko da, ez baita justifikatzen ez teknikoki ez ehizaren ikuspuntutik. Ez da inola ere salbuespen izango ehiztariak esparru batean ugaritu izanagatik tiro postu gehiago eskatzea.

8. Oro har, 700 metrotik behera ez da tiro postu berririk (hegan doazenei tiro egiteko) egiterik onartuko, salbu eta ehiza lurrok kota horretatik gora lurrik ez badute edo, izatekotan, baldintza teknikoak edo ehizazkoak behar bezala betetzen ez badituzte baimena emateko.

9. Baimenak urte birako emango dira, beste pertsona batzuei kalterik edo enbarazurik egiten ez zaiela egiaztatzeko.

F. SEINALIZAZIOA:

1. Arabako lurralde historikoko tiro postu eta txabola guztietako seinaleak behar bezala berdintzeko, arautu egingo dira honako baldintzen arabera:

a). Legez baimendutako tiro postu eta txabola guztiek identifikazio plaka bana jarri beharko dute, ondoko ezaugarri hauekin: kolore zuria, esparruei buruzko 2. aginduaren antzekoa, eta hiru lerroko testu beltza, zeinak ondoko hau jakinaraziko baitu:

- Ehiza esparruaren matrikula
- Lerroaren izena
- Tiro postuaren edo txabolaren zenbakia

b). Seinale horiek postu eta txaboletan jarri beharko dira eta han egongo dira usoak eta birigarroak harrapatzea baimenduta dagoen epe osoan zehar, hau da, abuztuaren 15etik hurrengo urteko urtarrileko azken igandera arte.

2. Usotarako tiro postu inguruetak bide eta pistetan, ehiza esparruetako edo postu lerroetako elkarte, klub eta pertsona esleipendunek uso postuak daudela jakinarazten duten seinaleak

jarriko dituzte ehiztari eta beste erabiltzaile batzuen artean arazorik sor ez dadin. Foru agindu honetako II. eranskinean ageri den ereduaren arabera egingo dira seinaleak.

BIGARRENA. I. eranskinean zerrendatzen diren ohiko pasealekuak eta tiro postuak (hegaz doazenei tiro egiteko), txabolak eta birigarrotarako tiro postuak baimentzea.

HIRUGARRENA. Aprobetxamenduari buruzko auziren bat ebazteke edo adosteke dagoen eremuetan tiro postuak edo txabolak erakunde edo komunitate bati atxikitzeak ez dakar nahitaez ehiza jabetza izatea.

LAUGARRENA. Nekazaritza Sailak foru agindu honen edozein alderdi aldatzeko ahalmena du, eguraldi, biologia egoera edo bestelakoen eraginez; baita I. eranskinean ageri diren tiro postuak kontuan hartuta tiro postu berrietarako baimenak eman edo beste batzuetarako baimenak ukatzeko ere.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA. Indargabeturik geratzen dira irailaren 8ko 199/2015 Foru Agindua eta foru agindu honen aurka dauden gainerako xedapenak.

AZKEN XEDAPENA. Foru agindu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko irailaren 14a

Nekazaritza Saileko foru diputatua

EDUARDO AGUINACO LOPEZ DE SUSO

Nekazaritza zuzendaria

ALFREDO SAEZ DE CASTILLO BELTRAN DE OTALORA

I. ERANSKINA

USO ETA BIRIGARROTARAKO BAIMENDUTAKO OHIKO TIRO POSTUEN ZERRENDA
(2016-2017 denboraldia)

UDALERRIA ETA ENTITATEA	TIRO POSTUEN IZENA
DULANTZI	
DULANTZI	Galzar (1) (txabola), Aguas (2 - 5) eta El Balcon 6 (Tiro postuak).
EGILETA	San Cristobal (1), Alto Itxutxa (2) eta La Peña el Fresno (1 eta 2) (Tiro postuak).
AMURRIO	
ALORIA	San Pedro (11 - 18) (Tiro postuak).
AMURRIO	Kuxkumendi (27) eta Peña Negra (28 eta 29) (Tiro postuak).
BARANBIO	Lakide (1 eta 2) (Tiro postuak).
DELIKA	Bagate (1), Santa Águeda (2 - 4), Torcatela (5 - 8) eta Santa Lucía (9 eta 10) (Tiro postuak).
LEKAMAÑA	Garate (1 eta 2) (Tiro postuak).
LEZAMA	Garate (3), Llano Soporeta (3 eta 4), Barrancada del Manzano (5 eta 6), Cuetos de Mendibil (7), Campa Gabiña (8 - 10), San Pedro (19 - 21) eta Txibiarte (22 - 26) (Tiro postuak).
SARATXO	Ozales (1 - 4) (Tiro postuak).
TERTANGA	Tertanga (1 eta 2) (Tiro postuak).
AÑANA	
GESALTZA	La Peña (1 eta 2) eta Peñamil (1) (Tiro postuak).
ARAMAIO	
IBARRA	San Adrian (1 - 11), Kurtzeta (1 - 15), San Kristobal (1 - 8), Larrazabal (1 - 18), Eperrenbaso (1 - 4), Lata (1 - 6), Jarindo-Maroto (1 - 39), Afasta (1 - 3) eta Lopei (1 - 8), Durakogain (1 - 6) (Tiro postuak).
URKIOLAKO PARKE NATURALA	Anjelakorosti (1 - 11), Ipistikoarriaga (1 - 18) eta Lurgorri (1 - 9) (Tiro postuak).
ARRAIA - MAEZTU	
APINAIZ	Alto Tejera, La Toba, Horno, Basabea, Prado Grande, Majada Vieja (1 eta 2), Arcillales, Grietas de Arboro, Majada Las Yeguas, Ipurtica, Cinco Hermanos, Los Bardales (a eta b), Fuente Mineral eta El Sasecal (txabolak).
ATAURI	La Cadena, Esquina Norte, Esquina Sur, Peñiz del Hayedo, Canteras del Hayedo, Moral eta Los Barrancos (txabolak).
LAMINORIA-ZEKUIANO	Uratxa (1 - 7), Basalao eta Lazabaliko (tiro postuak). Basabarri, Gachi, Cruciaga, Perraran, Santa Lucia, Cruz de Ventura eta Iquindi (txabolak).
KORRES	El Temblar, Usasolo, Bardilus, El Encinar, Escurribia, Icalordoya, Arregi, Alto de la Dehesa eta El Chopal (txabolak).
MAEZTU	Millao, Pozo Negro, Zocarrate, Iparduia, Sasecal, Peña Corral, Esquinaguda (a eta b), Portillo (a eta b), Basalao, Dehesa, Marukaldai, Llano, Barranco del Haya, Barrancohondo, La Majada eta Larrabila (txabolak).
ERROETA	Adaleku (1 eta 2), Campo Santo El Viejo (3), San Juan (4) eta Peña Redonda (5) (Tiro postuak).
SABANDO	Majadilla, El Bonete, Eskurrieta, Mendiribila, Haya Grande eta Debarana (txabolak).
BIRGARAGOIEN	Kanpanoste, Perraran, Malaperri, Matadui-Peña Acayo, Tasugueras, Tasacona-San Mames, Durubia, Mataucos, Puntal eta Ordoki (txabolak).
ARRATZUA-UBARRUNDIA	
ARROIABE	Campana (1 eta 2) (Tiro postuak).
BETOLAZA	Canteras (1) eta Zirabaso (1 - 4) (Tiro postuak).
LANDA	Isuskitza (1 eta 2), Mendilarripa (3 - 10) eta Usokoaitza (11 - 15) (Tiro postuak).
LUKU	Zirgueta (1 eta 2) (Tiro postuak).
MENDIBIL	Larragana (1 - 3) (Tiro postuak).
LANGARA GANBOA	Santa Cruz (1 - 3) (Tiro postuak).
URIBARRI GANBOA	Lotxate (1 - 7) eta Alto de Galzarra (1) (Tiro postuak).
ARTZINIEGA	
ERRETES TUDELA	Las Tablas (1 - 6) (Tiro postuak).

UDALERRIA ETA ENTITATEA	TIRO POSTUEN IZENA
ASPARRENA	
ALBEIZ	Apota-Ohiko (6 - 13), Atabarrate (0 - 6) eta Peña de Albeniz (1 - 4) (Tiro postuak).
ANDOIN	Belleku (29 - 36) (Tiro postuak).
APOTA-UBARRUNDIA	Apota-Ohiko (1 - 5), Apota (1 - 5), Arbarrain (1 - 8) eta Olano (1 - 4) (Tiro postuak).
ARAIA	Majadas Viejas (1 - 3) (Tiro postuak).
EGINO	Karabide (1 - 7) (Tiro postuak).
IBARGUREN	Txaradoi-Mendigorri (1 - 18), Akarrate (19 - 23), Kortandi (24 - 27) eta Puerto de Andoin (28) (Tiro postuak).
URABAIN	Olazabal (1 - 18) (Tiro postuak).
ARAIA INGURUA	Atabarrate (7 - 12) eta Allaitz- Puerto de Allarte (1 - 4) (Tiro postuak).
AIARA	
GOROBEL MENDILERROA	Aro (1 eta 2) (Tiro postuak).
AÑES	Añes (1 - 4) (Tiro postuak).
MAÑUETA	
MAÑUETA	El Soto (1 - 7) (birigarrotarako tiro postuak).
BARRUNDIA	
ETXABARRI URTUPIÑA	Atila-1 (txabola).
ELGEA	Elgeamendi (Tiro postuak).
ETURA	Alto Dundo (tiro postua) eta Aldaia (txabola).
GEBARA	El Castillo (1 eta 2) (txabolak).
HEREDIA	Alto de Txurlita (1) (Tiro postuak).
HERMUA	Peña el Moro (1), Alto del Raso (2), Hoyo de Hermua (3) eta Carelava (4) (Tiro postuak).
LARREA	El Mojón (5), La Cruz (6), Burgamendi (7) eta Usalakotxena (8 - 11) (Tiro postuak).
MARIETA	Arkamo (1 - 13) eta Anguta (1 - 3) (Tiro postuak).
MATURA	Alto San Miguel (1), Mojonera (2) eta La Dehesa (3) (Tiro postuak).
OZETA	Alto Piedra (1 - 4) eta Saiturri (5) (Tiro postuak).
BERANTEVILLA	
LACERVILLA	El Monte (1 eta 2) (Tiro postuak).
MIJANCAS	Las Pozas (1) (Txabola) eta El Montecillo 2 (Tiro postuak).
SANTURDE	El Hayedillo (1) (txabola).
TOBERA	Turraran (1 - 3) (Tiro postuak).
BERNEDO	
ARLUZEA	Fuente de las Palomas, Jupana - La Pared de los Ríos, El Acebo, Los Bardales, Mandizibidia (txabolak).
BERNEDO	Bergón (1 - 5), Peña Colorada (1) (Tiro postuak), Laegi, Carrasca Alta, Carrasca Baja, Arboledo, Corros de Abajo, Corros de Arriba, El Cerrado, La Molina, Barniojo, Corniazo, Lapomendi, Majada Vieja, La Dehesa-1, Los Huecos, Roble Alto, Las Encinas, Los Cerros eta Ripela (txabolak).
IZARTZA	Tierras Rojas (1), Las Palomeras (2), Alestuya (3) eta El Espino (1 eta 2) (Tiro postuak).
MARKINEZ	Alto Arrausia, La Quemada, El Hoyo, Barraskonzabala, El Rosal, Sanabarra, Agirza, Espalza, Mendezigana, Lazagorria, Sarba, Bochorno eta Cerro de los Espinos (txabolak).
OKINA	Castañarriz (1 - 5), Monte Cuchillo (1 - 3) eta Zalmendi (1) (Tiro postuak).
QUINTANA	Atelaran (1), Dehesa Abajo (3), Dehesa Arriba (4), Langorri (5), Los Cerros (6), Luzaran (7), Majada de los Cochinos (8), Marizurieta (9) (tiro postua), Mojón Alto (10), Montico (11), Roble Gordo (12), San Cristóbal (13) (tiro postua), Sasuralde Centro (14) eta Sasuralde Orillos (15) (txabolak).
DURRUMA	
KANPEZU	Arandilun-La Encina (16), El Tabarro (17), El Pretel (18), Irazan (19), La Lecina (20), Los Pechos (21), Mendizorroz (22) eta Zabala (23) (txabolak).
URARTE	Los Hoyos (1 eta 2), Barrancondo, San Cristobal eta Peña Blanca (txabolak).
URTURI	Las Hayas (61), Iturrioz (62), La Haya Alta (63), La Majada (64), Alto de Bochorno (65), Barranco Hondo (66), El Olmo (67), La Chojica (68), Majada Domingón (69), Marizurieta (70) eta Sasuralde (71) (txabolak).

UDALERRIA ETA ENTITATEA	TIRO POSTUEN IZENA
KANPEZU	
ANTOÑANA	Lanzaron, El Matorral, Las Zapacas debajo del Canal, Los Agines, La Majada, Cueva del Moro, El Peñon Blanco, Los Molinos con la Fuente del Buey, La Torca, Hornillo, Peña la Abeja, Las Cabezadas, Tejería, Puesto Nuevo, Los Planos eta Monte Atauri (txabolak).
BUJANDA	El Olivastral, Alto Mediano, Bacarrial, El Encinar, Roble Hueco, La Parra, Solana eta El Ginebral (txabolak).
URBISU	Los Carrascales (1 - 6) (tiro postuak), El Rincon eta Conejaz, Los Canejos, Robles del Corral, Canejillo, La Peña eta El Negraz (txabolak).
OTEO	La Charquilla, La Pajarilla, Los Castaños, La Silla del Sastre, El Riscar, La Majada de los Olmos, La Marrizala, La Redonda, Olmos, La Esquina San Cristobal, Majadilla de las Lecas, Peñapuntón, Las Lecas, El Vacío eta El Boquete del Castillo (txabolak).
SANTIKURUTZE	
KANPEZU	El Roblon del Carrascal (a eta b), Pieza Marco, Los Secos, El Barranquillo, San Pedro (a eta b), Valpedrosa de Abajo (a eta b), Valpedrosa de Arriba, Puntigudo, La Parada, El Roblon de Adelante, El Chopillo, Marcelo, El Plano de Arriba, El Plano de Abajo, El Roblecillo del Guarda, El Roblecillo de la Virgen, El Roble del Boticario de Abajo, La Garita, Peña Blanca, Barzones, Pieza Lamo, El Roble de Arriaran, El Biercolar, El Cerro Marañón (a eta b), El Roble Vidaña, Cirrifuentes, Los Roblecicos de la Dehesa, Juan de las Fuentes (a eta b), Los Larguillos de Esporneja (a eta b), El Redal, El Corvo, El Desmochado, Las Carrascales, El Ancho (a eta b), El Liso, La Caldera, La Horma, la Cuesta de Casarrocín, Los Horcajos eta la Balsa, Barjuliana, El Calero, Los Pozos, El Poyo, Hayas Altas de Hornillo, La Encinada eta El Roble de la Peña (a eta b) (txabolak).
BURGELU	
AÑUA	Santa Lucia 1 (txabola).
IXONA	Basano (1), Kostazabal (1 eta 2) eta Askorri (1) (Tiro postuak).
ARGOMANIZ	Quiltxano (1) (a,b), Quiltxano (2) (txabolak) eta La Balsa (3) (Tiro postuak).
ELCIEGO	
ELCIEGO	Tronco Negro (1), La Campanilla (2, 3 eta 4), El Molino (7), Romaneda (5 eta 8), La Mezana (6 - 11) eta El Encinal (12 - 14) (birigarrotarako tiro postuak).
BILAR	
BILAR	San Vicente (1), El Encinal (2 eta 3) eta Reñanilla (4 - 7) (birigarrotarako tiro postuak).
IRUÑA OKA	
LANGRAIZ OKA	El Escobillo (1 - 3), Landatxi (4 - 6), Lakogorri (7 - 11) eta Encina Negra (12 - 14) (Tiro postuak).
TRESPONDE	Bardaran (1 - 5), Larebotxa (1 - 6) (tiro postuak) eta Debajo de Lakutxeta (7) (txabola).
BILLODA	Lakutxeta (1 eta 3), La Tejera (2), La Dehesa (4 eta 5) (Tiro postuak).
IRURAZ-GAUNA	
AZILU	El Cerro 1 (txabola).
ALAITZA	Los Pinos (1 eta 2) eta Urarte (1) (Tiro postuak).
ARRIETA	Atila-2 eta Otxamendi (txabolak).
ERENTXUN	San Juanarrete (1), Atzamun (2), Sonaran (3) (txabolak) eta Itxutxa (4 - 7) (Tiro postuak).
EZKEREKOTXA	El Tunel (txabola).
GAUNA	San Vitor (1 - 5) (Tiro postuak).
GEREÑU	Alto de los Curas (1 eta 2), Las Rochetas (1) (Muro 2) (tiro postuak), Muro (1) (txabola).
JAUREGI	Unburu (1 eta 2) (Tiro postuak).
LANGARIKA	El Montico 1, Las Canteras 2 eta La Ilarra 3 (txabolak).
TROKONIZ	Alburrey (1 eta 2), Las Aguazaderas (3 eta 4) eta Uragona (5) (Tiro postuak).
KRIPAN	
KRIPAN	Puerto de Villafria (1 eta 2), Puerto Nuevo (1 eta 2) (tiro postuak), Ronillas (1), Ribacastillo (1) (txabolak) eta Carrapedrico (1) (birigarrotarako tiro postua).
KUARTANGO	
ANDAGOIA	Pitxandurri (1) (Tiro postuak).
ARRIANO	Santidrian (1) eta Peña Alta (2) (Tiro postuak).
LEDANIA DE LUNA	Corral del Cura (3) (Tiro postuak).
SENDADIANO	Krutiaga (5) (Tiro postuak).
URIBARRI	Uribarri (1) (Tiro postuak).
YARTO MEN. ERK.	Iartos (3 - 4) (Tiro postuak).
MARINDAKO LEDANIA	Rodio (2) (Tiro postuak).

UDALERRIA ETA ENTITATEA	TIRO POSTUEN IZENA
BASTIDA	
BASTIDA	Toro (1 - 5) (birigarrotarako tiro postuak).
LAGRAN	Biribila-Usasolo (1 - 5), El Astillar (1 - 7), Ataldape (1 - 6), Ambros (1 - 3), Altos Arriba (1 - 3), Altos Abajo (1 eta 2), Bujamendia 6, Risco Alto 9, La Zorreta 10 (txabola), Ramuza Arriba 11 (Txabola), Artikuzila 12, Latizarra 13 (txabola), Pieza Patxiko 14, Jaundel 15, Artamendia 16, La Cuestica 17, Bergon Abajo 19 (txabola) eta El Cerro 20 (Tiro postuak).
PIPAÓN	Puerto de Herrera - El Bujo (1 - 6), Alcantarillas (7 - 15), Los Barranquicos (16 - 18), Onzate (19), La Llana (20), El Carrascal (21 - 28), Las Paradas (29), Nagueseta (30) (txabola), La Junta (31 - 35 bis), Tasugueras (36 - 41), Peña La Torca (42), Lleca Alta (43 - 45), Urrola (46) (tiro postuak) eta Lleca de San Marciala (47) (txabola).
VILLAVERDE	Ortugal (7) eta Rasuleta (8) (txabolak).
GUARDIA	
GUARDIA	Berberana (1 - 6), Fuente Teja (1 - 5), Barranco de Babernal (1 - 4), Deposito de Aguas (1 - 3), Camino Fuente El Haya (1 - 3) eta La Pobeda (1 - 3) (birigarrotarako tiro postuak).
LASERNA	Laserna (1 eta 2) (birigarrotarako tiro postuak).
MENDI ERKIDEA	Alto del Avellanar (1 - 3) (tiro postuak), Puerto Toro (1 - 4) eta San Miguel (1 - 4) (birigarrotarako tiro postuak).
LANTZIEGO	
LANTZIEGO	La Guillerma (1 - 4) eta Los Molinos (1 - 4) (birigarrotarako tiro postuak).
LANTARÓN	
ALCEDO	Alcedo (1) (Tiro postuak).
BERGONDA.	La Dehesa (2) (Tiro postuak).
CAICEDO YUSO	El Santo (1 eta 2) (Tiro postuak).
MOLINILLA	Molinilla 1 (txabola).
TURISO	El Monte (1 eta 2), Campomayor (3), El Cascojal (4) (txabola) eta Velillas (5 eta 6) (Tiro postuak).
LAPUEBLA DE LA BARCA	
LAPUEBLA DE LA BARCA	El Soto (1 eta 2) eta el Horado (1 eta 2) (birigarrotarako tiro postuak).
LEGUTIO	
URBINA	Galdarrain (1 - 4) (Tiro postuak).
URRUNAGA	Etxaburu (1), Seimendi (2 eta 3) eta Isasi (4 - 7) (Tiro postuak).
LEGUTIO	Castillo de Mendigain (1 - 29) eta Josenbaso (30 - 35) (Tiro postuak).
LEZA	
LEZA	El Encinedo (1 - 4), El Montecillo (1 - 5) eta La Cruz (1 eta 2) (birigarrotarako tiro postuak).
LAUDIO	Isardio (1 - 4), Olarte (1 eta 2) eta Elorritxugane (1 - 4) (Tiro postuak).
NAVARIDAS	
NAVARIDAS	El Monte (1 - 6) eta Piedras de Peña Moros (1 eta 2) (birigarrotarako tiro postuak).
OION	
LABRAZA	Pinganilla (1 - 3) eta Las Balsas (1 - 8) (birigarrotarako tiro postuak).
URIZAHARRA	
URIZAHARREKO UDALA	Sierrillas - Dos Hermanas (1 - 16), Osluna-Artazbal (17 - 27), Ataun - Alto Cocinas (28 - 37), Alto Cocinas - Cuevas de San Leon (38 - 50) (Tiro postuak) eta Santa Lucia (51) (txabola).
BAROJA	Sestero (1 eta 2), Sarrea (3 - 7), Los Riscos (8), Los Cubones (9), Las Lagunas (10), Alto de las Lagunas (11), La Ladera (12), El Pino (13 eta 14), Ascorri (15), La Hayica (16), El Acebo (17), Camino a Torre (18), Balcon de Pilatos (19 eta 20), Lo Mocho (21 eta 22), Bacibuchi (23) (Tiro postuak), Alto de Ormatxa (24 eta 25) eta Zabala (26) (txabolak).
FAIDU	Ganbide (1 - 3), Los Trancos (4 eta 5), Los Bojes (6) (tiro postuak) eta Los Campos (7) (txabola).
LOZA	Las Returas (1 - 8), Pertica (9 eta 10), Alto de la Ladera (11), Olagurria (12 - 14) (Tiro postuak).
MONTORIA	Likatxi (1 - 8), Los Cerros (9 - 16), Trabuquete (17 eta 18), Lingorri (19 eta 20), Las Torcas (21 - 23), Otero los Palos (24 eta 25), La Rasa (26 eta 27), El Pecho (28 - 31), Los Robados (32) (txabola) eta Izquierda (33 eta 34) (Tiro postuak).
PAGOETA	Mendigurina (1 - 6), San Cristobal (7 eta 8), El Cerro (9 - 14), Sarrea (15 - 17) eta Alto del Molino (18 - 20) (Tiro postuak).

UDALERRIA ETA ENTITATEA	TIRO POSTUEN IZENA
URIZAHARRA	Corral de Magete - Juan Galan (1 - 11, 5 eta 7 izan ezik), Juan Galan - Castillo de Villamonte (12 - 22), Portillo del Ciervo (23 eta 24), Lleca Grande (25), Azpuru (26), Las Txurdinas (27 - 37), Sarrea (38 - 42) (tiro postuak), Casales (43) eta Itobarro (44) (txabolak).
LA RASASKO ERKIDEGOA	Las Rasas (1 - 6) (Tiro postuak).
ERRIBERAGOITIA	
ANTEZANA DE LA RIBERA	Montemayor (1 - 3) (Tiro postuak).
ANUNTZETA	Carcamendiga (1 - 3) (Tiro postuak).
ARREO (*)	San Martin - Miralobueno (1 - 9) (Tiro postuak).
BARRON	Castillo del Cura (1) eta La Lobera (2 eta 3) (Tiro postuak).
CAICEDO SOPEÑA	Santa Marina (1 - 5) (Tiro postuak).
LECIÑANA DE LA OCA	La Llosa (1 - 3) (Tiro postuak).
MORILLAS	San Pedro (5), Peña Mayor (6), Ocejuancho (7), Cueva Yerada (8 eta 13), El Repetidor (9), Los Postes (10) eta Encino Rubio (12) (Tiro postuak).
POBES	Socuevas (11) (Tiro postuak).
SAN MIGUEL	Carasta (1) eta Casares (2 eta 3) (Tiro postuak).
SUBIJANA	La Silla (1), Columnas de Hierro (2), Encinas Gordas (3) eta Sopeña (4) (Tiro postuak).
VILORIA	Las Ribas (1 - 5) (Tiro postuak).
VILLABEZANA	Los Pendios (1 eta 2) (tiro postuak) eta Celadas (3) (txabola).
VILLAMBROSA	Valcavada (1 eta 2) (Tiro postuak).
(*). Tiro postu horiek legez baimenduta eta inbentariatuta badaude ere, 3-8 tiro postuetan debekatuta dago ehizan aritzea, harik eta, dagokion mugaketa bidez, Arreokoak ala Biloriakoak diren erabaki arte.	
ERRIBERABEITIA	
QUINTANILLA DE LA RIBERA	Ladera Mozon (1 eta 2) (tiro postuak), Monte Cementerio (1), Sorberozal (2) eta Añana (3) (txabolak).
AGURAIN	
ARRIZABALAGA	Mendizabal (1 - 4), San Isidro (1), Sasiandi-Soto de Arrizala (1 - 5) (txabolak) eta Galzar (1 - 4) (Tiro postuak).
EGILEOR	Moruzko (1 eta 2), Lusuri (1 eta 2), El Balcón (1 - 5), Adaleku (1), Puerto San Juan (1), Peña del Cura (1), Varga de Egileor (1 - 3) eta Alto de Buruzko (1 - 4) (Tiro postuak).
OPAKUA	Alto Grande (1 - 6) (Tiro postuak).
SAMANIEGO	
SAMANIEGO	Samaniego (1 - 4) (uso postuak), El Cristo-Ribarredonda (1 - 12) (birigarrotarako tiro postuak).
DONEMILIAGA	
ADANA	Alto de Lave (1 eta 2) eta Ilarra (1) (Tiro postuak) eta El Cerro (2 eta 3) (txabolak).
EGILATZ	Arbe (1 - 4) eta Reñarán (5 - 10) (Tiro postuak).
MEZKIA	La Balsa (txabola).
NARBAXA	Portillo de Oñate (1), Pozo Viejo (2) eta Zurkruz (3 eta 4) (Tiro postuak).
OKARIZ	Alto Beragain (1 - 4) (tiro postuak), El Cerrado (5 - 7) eta San Paulo (8) (txabolak).
DURRUMA	Viara-Bayo (1 - 16) (Tiro postuak).
URIBARRI-JAUREGI	El Espinal-Arti (1 - 10), Atazarra (1 eta 2), Laminoria (1 - 6) eta Zabala (1 eta 2) (Tiro postuak).
BIKUÑA	El Cerrao (1) (Tiro postuak).
URKABUSTAIZ	
ABEZIA	Gambaza (1) (Tiro postua).
ABORNIKANO	Zorrakina (9 eta 10) (Tiro postuak).
BELUNTZA	El Cueto (7 eta 8) (Tiro postuak).
GOIURI	El Somo (4) (Tiro postuak).
OIARDO	Goikoana-Gurpide (1 eta 3) eta Larrabaltza (2) (Tiro postuak).
UNTZAGA	Peña Zeberi (11 eta 12) (Tiro postuak).
BASAUDE ERKIDEGOA	Somo Txilotxa (5 eta 6) (Tiro postuak).
GAUBEA	
ESTULIZ	El Prejillo (1) eta El Castillo (2) (Tiro postuak).
BACHICABO	Alto de San Miguel (1 - 3) (Tiro postuak).
BARRIO	Portillo de la Vigas (1) eta Peña Balcon (1) (Tiro postuak).

UDALERRIA ETA ENTITATEA	TIRO POSTUEN IZENA
BÓVEDA	Leron (1 eta 2) eta La Horca (3 eta 4) (Tiro postuak).
FRESNEDA	Pozo Portillo (1 eta 2) eta Portillovocos 3 (Tiro postuak).
GINEA	Ginea (1 - 3) (Tiro postuak).
MIOMA	La Chozta (3), El Rincon (4), Peña Ordo (5), Portillo de Bardezi (6), Peñalta (7) eta Portillo del Lobo (8) (Tiro postuak).
NOGRARO	Trevante (1), Barrones (1) eta Alto Pozo (1) (Tiro postuak).
OSMA	Hayacero (1 - 3) (Tiro postuak).
URIBARRI	Los Vallejos (1 eta 2) eta Morales (3) (Tiro postuak).
ARCENAKO ERKIDEGOA	Ozales (1 - 6) (Tiro postuak).
HARANA	
ALDA	El Cogote (1) (txabola), Santa Ursula (2) eta Cruz de Alda (3 eta 4) (Tiro postuak).
KONTRASTA	El Puertico (1 - 3) eta Oilarregaina (4 eta 5) (Tiro postuak).
DONE BIKENDI HARANA	Casacona (1 - 5), Alto de la Dehesa (6 - 8) (Tiro postuak), La Dehesilla (9) eta Salterio (10) (txabolak).
URIBARRI HARANA	Alto Ramontxu (1), Alto Larran (2), Balcón de Catusarte (3) (txabolak), Alto Mendi (4) eta Peña Iturzabal (5) (Tiro postuak).
ESKUERNAGA	
ESKUERNAGA	La Tejera (1 - 4) (birigarrotarako tiro postuak).
GASTEIZ	
GASTEIZ	Onzarana mendia: Mojon Blanco (1 eta 2), Alto Onzarana (1 - 3) eta Tejera Mendiola (1 - 5) (Tiro postuak).
	Otxoaga mendia: Artzamendi (1 eta 2), Otxoaga (1) eta Azkorri (1 eta 2) (Tiro postuak).
	Resalampe mendia eta la Chaparca: Olarizu (1 - 4), El Serradero (1), Alto Askarzakoa (1 - 3) eta Jaunari (1 - 3) (Tiro postuak).
	Portucho mendia eta Iturrioz: Portucho (1 - 3) (Tiro postuak).
ABERASTURI	Argandoña-Zabala (1), Orobi (1), Etxazarra (1) eta Oletaco (1 eta 2) (txabolak), Mendiagerra (1), Los Volantes (1), Alto de Madariaga (1) eta Kapilduia (1 - 4) (Tiro postuak).
ANDOLLU	Artecocilla (1), Rezabala (1), Matacuciera (1) (txabolak) eta Los Llanos (1 eta 2) (Tiro postuak).
ARGANDOÑA	Mendiluz 1 (txabola).
ASKARTZA	Mendiluz 2 (txabola).
BERROZTEGIETA	Ventanas de Ogabe (1) eta Casa Vieja (2) (Tiro postuak).
BOLIBAR	Alto Mendi (1), Ladera de Mendi (2), Arkatxa (3 eta 4), Alto del Cerrado (5 eta 6), Ladera de la Majada (7) (txabola), Ladera de la Majada (8), Armora (9) (txabola), Saimendi (10) eta Salsibarri (11) (Tiro postuak).
GAZTELU	Baiorana (1 - 5) eta Los Avellanos (6 eta 7) (Tiro postuak).
GAMIZ	Los Pinos (1), Alto del Pino (2) eta Paleton (3 eta 4) (Tiro postuak).
GOMETXA	Retalbaltza (1), El Castillo (2), El Haya (3), Alto del Espino (4), San Quiliz (5), El Arenal (6), Cuatro Caminos (7), Txurdin (8) eta Ventanas de Ogabe (9) (Tiro postuak).
OTOBARREN	Argatxa-Flaquiturri (1 - 16) (Tiro postuak).
OTOGOIEN	Olazar (1) (Tiro postuak).
LASARTE	Alto de Bagaza (1) eta Portillo de la Dehesa (2 eta 3) (Tiro postuak).
LEGARDA	Axpea mendia (1 - 5), Bolategi mendia (1 - 7) eta Katilutxo (1 eta 2) (Tiro postuak).
LUBIANO	Alto El Canal (1) (Tiro postuak).
MARTIODA	Unda (1 - 7) (Tiro postuak). Aranburu (1) eta Arantxintxi (2) (txabolak).
MENDIOLA	Basotxo (1 eta 2), Poza El Alto (3), Tejera Alto (4), Gritadero (5 eta 6), Bordolla (7), Rekutxumendi (8 eta 9), Chozta El Alto (10) eta Alto La Mina (11 eta 12) (Tiro postuak).
MENDOZA	Santa Cruz (1 eta 2), Lurrdaiz (3), Camino de Liñazeta (4 - 9) eta Santa Águeda (10) (Tiro postuak).
MIÑO	El Rio (1) eta El Molino (2) (txabolak).
MONASTERIOGUREN	Landazuri (1) eta Los Rozaos (1) (Tiro postuak).
SUBILLANA GASTEIZ	Alto de San Miguel (1) (Tiro postua).
URIBARRI NAGUSIA	Aldaia (1 eta 2), La Majada (3), Kalzagorri (4), El Chaparral (5), Usina (6) eta La Majada-Urlasa (7) (Tiro postuak).
URIBARRI ARRATZUA	Basotxo (1) eta Santa Marina (1) (Tiro postuak).

UDALERRIA ETA ENTITATEA	TIRO POSTUEN IZENA
URIBARRI IBIÑA	Otxantxa (1 - 6) eta Gereña Arana (7 - 10) (Tiro postuak).
ZUMELTZU	Zumeltzu (1 - 4) (Tiro postuak).
IEKORA	
IEKORA	Viñuela (1 - 4) eta El Alto (1 - 4) (Tiro postuak).
ZALDUONDO	
ZALDUONDO	Pealazuloeta (1 - 8) eta Leizarrate (1 - 6) (Tiro postuak).
ZANBRANA	
BERGANTZU	Saraciarro (10 - 12) (Tiro postuak).
ZIGOITIA	
AKOSTA	Alto Aldai (1) eta Atabe (2 - 5) (Tiro postuak).
APODACA	Amaritu (1 eta 2), La Cazeleta (1 - 4) eta Basotxo (1) (Tiro postuak).
ZIGOITIKO UDALA	Ojaras (1 - 2), Acero (1 - 3) eta Baltzolaga (1 - 3) (Tiro postuak).
BERRIKANO	Las Peñas (1) (Tiro postua).
BURUAGA	Bidaileta (1), Akaiu (1) (Tiro postuak) eta Isasi 1 (txabola).
ZESTAFE	Iñerbas (6 - 8) eta Antxogi (9 eta 10) (Tiro postuak).
ETXABARRI IBIÑA	La Dehesa (1) (Tiro postua).
ETXAGUEN	Ariskarro (1), Mendi (1 - 2), Mentoste 1 (Tiro postuak).
ERIBE	Araparte (11) eta Alto El Mojón (12) (Tiro postuak).
LETONA	La Llosa (1 - 3) (Tiro postuak).
MANURGA	Aidegi (1 - 3), San Bartolome (1 eta 2), Genda (1 - 4) eta Gurruseta (1 eta 2) (Tiro postuak).
MURUA	Alto de Santo Tomas (1 - 3) (Tiro postuak).
ONDATEGI	La Dehesa (1 eta 2) (Tiro postuak).
ERIBE-BURUAGA MEN. ERK.	San Juan (13 eta 14) eta Alto Pozobarri (15) (Tiro postuak).
LARRINOA-GOPEGI MEN. ERK.	La Dehesa (1 eta 3) (Tiro postuak).
OLANO-ZAITEGI MEN. ERK.	Pico Altunguer (1), Picotas Peilugan (2 - 4) eta Alto la Quemada (5) (Tiro postuak).
ZUIA	
APERREGI	San Roman (1 - 3) (Tiro postuak).
BITORIANO	El Carrascal (1), Alto de Santiago (2) (txabolak), Alto de Intusi (1 - 3) eta Peña Santa Marina (4 eta 5) (Tiro postuak).
DOMAIIA	Landaderra (1 - 6) (Tiro postuak).
LUKIANO	Artikuzil (1), Alto Avaro (2) eta Basubixi (3) (txabolak).
MURGIA	Aiurdin (1 - 3) (Tiro postuak).
ZARATE	Altuna (1 eta 2), Axpe 3 eta Askana (4) (Tiro postuak).
APERREGI MEN. ERK.	Arnate (1 - 3), Malapasada (4 eta 5) eta El Chorro (6 eta 7) (Tiro postuak).
BESTE ERKIDEGO BATZUK	
BADAIAKO SIERRA BRAVA Badaia (1 - 14) (Tiro postuak).	

II. ERANSKINA

USO POSTUETATIK HURBIL DAUDEN BASO BIDE ETA PISTETAKO SEINALEEN EZAUGARRIAK

Neurriak:	50 cm x 35 cm.
Materiala:	plastikoa, altzairua edo aluminioa.
Kolorea:	hondo zuriaren gainean gorri marraztutako hirukia (5 zentimetro lodia), hiruki barruan ehiztaria beltz pintatua.
Testua:	Goian: Kontuz / Atención
Behean:	Uso postuak / Puestos palomeros.
Testuaren kolorea:	beltza.
Testuaren lodiera:	6 cm altu eta 5 cm zabal.

KONTUZ / ATENCIÓN



USO POSTUAK / PUESTOS PALOMEROS